PADEA (ELIKAGAIEN ENPRESETAN ZUZENDARITZA PROGRAMA AURRERATUA) PRESTAKUNTZA IBILBIDEAREN 3. EDIZIOA KUDEATZEKO ETA EMATEKO ZERBITZUAK LIZITATZEKO BETE BEHARREKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

LEHENENGOA. SARRERA

HAZI FUNDAZIOA (aurrerantzean, HAZI) Euskal Sektore Publikoko Fundazioa da, eta bere jarduera-eremuaren barruan lehiakortasuna, jasangarritasuna eta berrikuntza bultzatzea, sustatzea eta garatzea da fundazioaren xedea eta helburua. Jarduera-eremu horrek barne hartzen ditu elikaduraren balio-katea (ekoizpen-sektorea, eraldaketa-sektorea, logistika eta gastronomia), egurraren balio-katea eta landa- eta itsasertz-ingurunea. Hala, horiek balioesten eta natura- eta kultura-ondareari eusten laguntzen du.

HAZIren helburu sozialen barruan dago nekazaritzako eta elikagaien sektoreko gaitasunak sustatzea prestakuntza-programa espezifikoen bitartez. Esparru horretan, PADEA (Elikagaien Enpresetan Zuzendaritza Programa Aurreratua) prestakuntza-ibilbidea kudeatzeko eta emateko zerbitzuak kontratatu nahi ditu HAZIk. Kontratuaren xedeari dagokion atalean deskribatzen dira zerbitzu horiek.

BIGARRENA .- KONTRATUAREN XEDEA.

“Elikagaien Enpresetan Zuzendaritza Programa Aurreratua: PADEA_Hirugarren Edizioa” ikastaroa kudeatzea eta ematea da kontratuaren helburua. EAEko elikadura-kateko talentuaren garapena bultzatu nahi du ikastaro horrek. Horretarako, parte hartzaileak enpresen kudeaketarako tresna aurreratuak erabiltzen trebatuko dira, eta lehen eskutik ezagutuko dituzte EAEko nekazaritzako elikagaien balio-kateko eragileen aurrean erreferenteak izan daitezkeen enpresen kasu praktikoak.

HAZI Fundazioak sustatuko du ikastaroa, Eusko Jaurlaritzaren baliabide propioa den heinean, BASQUE FOOD CLUSTER klusterrarekin elkarlanean.

PADEAren prestakuntza-ibilbidearen xede-taldea: EAEko elikaduraren balio-kateko enpresetako merkataritza arloan, berrikuntza arloan, arlo ekonomiko-finantzarioan, logistikan eta/edo talentuaren kudeaketa arloan zuzendaritza-postuak dituzten pertsonak, saileko arduradunak edo belaunaldien arteko errelebo-egoeran dauden pertsonak.

2.1._Garatu beharreko jarduerak

Oro har, HAZIrekin koordinatuta eskaini beharreko zerbitzuak hauek izango dira eta HAZIren protokoloen baitan eskaini beharko dira:

- PADEA prestakuntza-programa diseinatzea, plegu honen 2.2. atalean aipatzen diren edukien blokeen arabera.

- Irakasle taldea kudeatzea (irakasle egokiak identifikatu eta kontratatzea, hizlariei harrera egitea, ponentzian laguntza teknikoa ematea, material didaktikoa, joan-etorrien gastuak, ostatua...).
- PADEA prestakuntza-ibilbidearen hedapen-kanpaina: HAZIren gainbegiradapean, sor litezkeen zalantzak eta kontsultak argitzen laguntzea.
- Parte-hartzaileak erakartzea.
- Interesa agertu duten parte-hartzaileak aukeratzea (izena emateko, taldea osatzeko eta matrikulatzeko prozesuan laguntzea).
- Prestakuntza-saioak ematea.
- Saioen eguneroko kudeaketa, HAZIren LPP prozeduraren arabera (beharrezko baliabide materialak planifikatzea —instalazioak, ekipamendua, prestakuntza-baliabideak...—, ikastaroa aurkeztea, bertaratzea kontrolatzea, material didaktikoa prestatzea, jarraipena, parte-hartzaileak tutorizatzea, balorazio-inkestak kudeatzea, itxiera, ziurtapenen igorpena kudeatzea, justifikazio-memoriak...).
- PADEA ibilbideko prestakuntza-saio bakoitzari lotutako erregistro, justifikazio eta memoria guztiak betetzen direla bermatzea.
- Hazirekin eta Basque Food Clusterrekin (BFC) koordinatzea eta deskargua egitea.
- Prestakuntza-saioak kudeatzea, FUNDAE finantzaketa-iturriaren eskakizunen arabera.
- PADEA ibilbidea ongi garatzeko behar diren ekipamenduak.
- Zerbitzua ematea, HAZIren Lanerako Prestakuntza Profesionalaren prozedura jarraituz. *(I. eranskina)*
- Zerbitzua ematean Haziren barne-prozedurak betetzea.
- Finantzaketa-iturrien eskakizunak betetzea (FEADER, FUNDAE, justifikazio-memoria barne).

2.2._PADEA ibilbideak gutxienez izan behar dituen edukien blokeak:

- Marketin- eta merkaturatze-plana.
- Enpresaren nazioartekotzea.
- Finantza-plana.
- Talentuaren kudeaketa.
- Jasangarritasuna elikadura-enpresetan (ontziak, hondakinen kudeaketa...).
- Enpresaren digitalizazioa (AA barne).
- Logistika elikadura-enpresetan.

2.3._Programazioa eta metodologia:

Ikastaroak gutxienez 8 eta gehienez **10 prestakuntza-egun** izango ditu. Prestakuntza-egun bakoitza 8 ordukoa izango da, eta maiztasun erregularrarekin emango dira aldi horretan zehar. Abuztuan ez da prestakuntza-saiorik izango.

Prestakuntza-egun bakoitza bi saiotan banatuko da:

a) Goizeko saioa 5 ordukoa izango da. Bertan, 2.2. puntuan aipatutako edukien zati teorikoa emango da, ponentzia eta simulazioen bidez. Hala, parte-hartzaileak enpresen kudeaketarako teknikarik aurreratuenetan prestatuko

dira, eman beharreko edukien arlo bakoitzean. Irakasleen talde horri, aurrerantzean, *Teoriaren irakasleak* deituko diogu.

b) Bigarren saioa arratsaldez izango da, eta 3 ordu iraungo du. Bertan, estatu mailako nekazaritzako elikagaien balio-kateko enpresen jardunbide egokiak aurkeztuko dituzte, goizeko saioan landutako edukiarekin lotuta. Kasu horiek EAEko enpresa-ehunaren errealitateari aplikatzeko modukoak izan behar dute. Esperientzia egiaztatua duten eta nekazaritzako elikagaien balio-kateko edo Estatuko enpresa liderren azkenaldiko kudeaketan sektoreko erreferentetzat hartzen diren zuzendariek, kudeatzaileek eta/edo enpresa-jabeek azalduko dituzte kasuak. Irakasleen talde horri, aurrerantzean, *Practicioner* deituko diogu.

10 saio horiek aurrez aurrekoak izango dira.

PADEA_2025 prestakuntza-ibilbidea hasteko baldintzatzaileak:

Ikastaroa emateko kopuru egokia 20 ikaslekoa izango da. Bakoitza EAEko enpresa batetik etorriko da, eta hautagaiaren eta bere enpresaren profilek bat etorri beharko dute izen-emateak lehenesteko ezarriko diren balorazio-irizpideekin.

Hortaz, gehieneko parte-hartzaile kopurua 20koa izango da, eta ikastaroa hasteko, gutxienez, 15 pertsonak eman beharko dute izena. Dena den, izen-emate gutxiagorekin ikastaroa hasteko ahalmena izango du HAZIk.

Gutxieneko kopurura iritsi ezean, deialdia bertan behera geratuko da, eta une horretara arteko gastuak bakarrik kobratuko ditu erakunde lizitatzaileak.

I. ERANSKINA: ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA ZERBITZUAREN FLUXU DIAGRAMA

ÁMBITO:

- Cadena de valor de la Alimentación (CVA)
- Cadena de valor de la madera (CVM)
- Medio rural y Litoral

DISEÑO OFERTA FORMATIVA

- Captación de necesidades formativas
- Definición de la oferta formativa
- Difusión de la oferta formativa

GESTIÓN OFERTA FORMATIVA

- Evaluación colectivo participante.
- Valora del curso.
- Gestión facturacion.
- Elaboración memoria curso.
- Justificación fuente de financiación curso.

IMPARTICIÓN OFERTA FORMATIVA

GESTIÓN OFERTA FORMATIVA

- Diseño de las acciones formativas
- Gestion del expediente en función de la fuente de financiación
- Difusión de la acción formativa
- Gestión de la matriculación del curso
- Gestión de los recursos necesarios para el desarrollo de la acción formativa (equipo docente, instalaciones, material didactico, equipamiento, infraestructura,..)